



ANA DE CASTRO_ BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA ZUZENDARI NAGUSIA

Egun on guztioi:

Gaur hemen bildu gara Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoak beste urrats bat gehiago eman duelako bere ibilbide luze honetan. 1983. urtean hasitako bidetik, urtez urte, urratsez urrats jardun izan da Euskaltzaindia gure hizkuntzaren analisia eta interpretazioa eginez.

Behin eta berriz entzun dugun bezala, ikerketaren eta ezagutzaren arrakastarik handiena bere emaitzen gizarteratzean datza, eta gaur horretarako bildu gara hemen Bilboren bihotzean.

1918. urtean, Euskararen Akademia sortu zenean, Bizkaiko Foru Aldundia hantxe egon zen garai hartako euskararen aldeko mugimendu hark behar zuen bultzada emateko prest. Orduetik hona gure instituzioa beti prest agertu izan da, bere esku dagoen neurrian, Euskaltzaindiari eta bere lan esparruei laguntza emateko. Hala egin dugu urte luzez, hala egiten dugu gaur egun ere eta hala egiteko asmoa dugu datozen urteetan ere.

El Atlas lingüístico del euskera (EHHA) no es más que un claro ejemplo de esa colaboración tan necesaria. La Diputación Foral de Bizkaia ha creído en la necesidad de recopilar nuestra tradición oral, nuestros registros y nuestras variedades que al fin y a cabo son, entre otras tantas cosas, los elementos que hacen que nuestro euskera sea una lengua viva y rica.

El atlas, como lo podreis comprobar, es un trabajo que comenzó en el pasado, que sigue en el presente y que tiene la vista puesta en el futuro.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa etorkizuneko hizkuntzaren oinarrietako bat izango da eta horrela ulertzen du gainera Bizkaiko Foru Aldundiak ere. Lan honek gure hizkuntzaren alor desberdinak lantzen ditu: lexikoa, morfologia, sintaxia etab. Garai bateko hitzunen esaerak, ohiturak eta espresioak gordeta gelditu dira eta, egia esan, zoritxarrez, asko eta asko gaur egun ezin izango genituzke jaso ere egin; horra hor lan honen balio erantsietako bat.

Gordetako altxorra gizarteari bueltatzeko momentuan gaude orain.

Guzti honengatik goraiatzekoa da Euskaltzaindia arlo honetan egiten ari den esfortzua. Balio linguistiko eta etnografikoa duen lan honen zazpigarren aleak argia ikusi du gaur, eta gainera gizarte zabal bateri begira edukiak modu ikusgarri eta ulerterrazean erakusgai jarriko ditu Euskara Ibiltaria erakusketak.

Bide onetik goazela argi daukagu, baina aurretik egiteke daukaguna asko da oraindik ere. Bizkaiko Foru Aldundia lankidetzarako prest agertzen da eta etorkizunean ere, hurrengo urratsak eman ahala, bidelagun izaten jarraituko dugulakoan nago.

Zorionak egindako lanagatik.